

Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak 2022

Bere ahalmenen azpitik
gastatzen

2021eko azaroa



www.ela.eus

ELA

EUSKAL SINDIKATUA

AURKIBIDEA

1. Sarrera	3
2. 2020ko aurrekontu-politikaren balorazioa.....	3
3. 2021eko aurrekontu-politikaren balorazioa.....	5
4. 2022ko aurrekontu-proiektuaren balorazioa.....	6
5. Ondorioak eta proposamenak.....	15

1. SARRERA

2020.a pandemiaren urte gisa gogoratuko dugu; historian ezagutu dugun krisirik larriena pairatu genuen urtea, jarduera ekonomikoa eta adierazle ekonomikoak inoiz ez bezala jausi zirenekoa. Haren ondorioak ezagunak dira: BPGaren jaitsiera gogorra, prekarietatea, langabeziaren, ezberdintasunaren eta pobreziaaren gorakada, etab.

Aurten, aldiz, V formako susperraldia gertatzea espero zen. Eusko Jaurlaritzak 2021eko aurrekontuen proiektuan aurreikusi zuen BPGaren hazkundera %8,9koa izango zela. Alabaina, halakorik ez da gertatu; gauzak ez dira bilakatu espero bezala. Hazkundera uste zena baino ahulagoa da; inflazioa lehertu egin da; hornigaien krisia eragin larriak izaten ari da; zorra puzten ari da, etab. Hau da, ekonomian, ziurgabetasuna nagusi.

Aurrekontuei dagokienez, gogoratu behar da 2022rako, 2020 eta 2021ean bezalaxe, Europar Batasunak eten egin dituela arau fiskal direlakoak. Hots, administrazioek ez dituzte ekitaldi hauetarako defizit eta zor publiko mugak bete behar, hurrenez hurren %3 eta %60ean finkatu zirenak, ezta gastu-araurik ere. Haatik, ondoren ikusiko dugun bezala, Eusko Jaurlaritzak ez du aukera hau baliatu, aurtengo gastu-aurrekontuan eraginez.

Txosten honetan 2020, 2021 eta 2022ko aurrekontu-politika aztertuko da. 2020ri buruz aurrekontuaren likidazioa daukagu; beraz, pandemia urteko gastu eta sarrera errealak zehatz-mehatz ezagutuko ditugu. 2021 ekitaldia analizatzeko itxiera aurreikuspena dugu, eta 2022rako, Azpiazu sailburuak aurkeztu zuen proiektuaren balorazioa egingo dugu.

2. 2020KO AURREKONTU-POLITIKAREN BALORAZIOA


2021eko aurrekontu-proiektuaren analisisian Eusko Jaurlaritzaren 2020ko aurrekontu-politika aztertu genuen. Orduan esan eta salatu genuen zer nolako propaganda egin zen, eta gastua oso gutxi hazi zela testuinguru ekonomiko eta soziala kontutan izanik.

Analisi hura egiteko Eusko Jaurlaritzak urtero argitaratzen duen itxiera aurreikuspena baliatu genuen; ohi denez, aurreikuspen hori interesatua da eta ez dator beti errealitatearekin bat. Hala ere, urte bat beranduago, 2020eko aurrekontuaren likidazioa badaukagu, definitiboa dena, eta ondorioz ezagutu ditzakegu administrazio orokorraren gastu eta sarrera errealak. Ondoren punturik interesgarrienak aipatuko ditugu.

Sarreretan, bildutako zergetan jaitsiera orokorra gertatu zen; ondorioz, Foru Aldundien ekarpenak %12 murriztu ziren, hau da, 1.255 milioi. Zenbateko hori konpentsatu ahal izan zen, batetik, espainiar arlo publikotik jasotako transferentzietan esker, 623,8 milioi gehiago etorri baitziren, Covid funtsa medio. Bestalde, zorraren jaulkipena 2.093 milioi euroraino hazi zen, aurrekontuetan markatutakoa baino 1.206 milioi gehiago; honek sarreraren %17 ekarri zuen, oso kopuru handia, egoerak justifikatua izan litekeena. Horrela, 2020. urtea 12.322 milioi euroekin itxi zen.

2020ko aurrekontu-proiektuak 11.774 milioi euroren gastua aurreikusi zuen. Bada, 2020ko aurrekontuko gastua azkenean 11.780 milioikoa izan zen; horrek esan nahi du Eusko Jaurlaritzak aurreikusi baino 6 milioi gehiago besterik ez zuela gastatu. Beraz, pandemiari aurre egiteko aurrekontua gehitzea inoiz baino premia handiagoa zenean Eusko Jaurlaritzaren partetik, eskumenak funtsean gizarte-politikei dagozkielako, are nabarmenagoa izan da kontrako jarrera. Argi geratu da lehentasuna ahal zen gutxien gastatzea izan dela. Sail nagusiei erreparatuz gero, osasungintzara soilik %4,2 gehiago bideratu zen, eta hezkuntzara, %4,4 gehiago. Begibistakoa da igoera oso urriak izan zirela, zeuden behar sanitario, sozial eta ekonomikoak asetzeko aski izan ez zirenak.

2020ko gastu eta sarreraren aurrekontu proiektua eta likidazioa (milioi €)



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren 2022ko aurrekontu-proiektua

Beraz, jaulki zen zorra izan ez balitz kontuek %15,2eko defizita emango zuket. Alabaina, zorra, Covid funtsak eta gastua ez gehitzeko erabakia medio, Jaurlaritzak 2020 ekitaldian 540 milioi euroren aurrekontu-superabita izan zuen. Aurrekontuz kanpoko beste operazio batzuk gehituz gero, ekitaldiko aldea guztira 767 milioi eurokoa izan zen. Ondorioz, zenbateko hori batzen bazaio 2019 bukaerako soberakinari (1.656 milioi), 2020ko abenduaren 31n 2.423 milioi euro zeuden altxortegian.

3. 2021EKO AURREKONTU-POLITIKAREN BALORAZIOA


Aurtengo aurrekontu-politikaren balorazioa egiteko Ekonomia eta Ogasun sailaren itxiera aurreikuspena daukagu. Arestian esan dugunez, hauek behin behineko kopuruak dira, eta horrenbestez likidazioarekiko ezberdinak izan daitezke.

Eusko Jaurlaritzaren aurtengo sarrerak aurrekontu-proiektuan aurreikusi baino askoz handiagoak izango dira. Proiektuan 12.442 milioi kuantifikatu ziren, baina gobernuaren aurreikuspenen arabera kopurua 13.397 milioi eurora iritsiko da, hots, ia 1.000 milioi gehiago izango dira.

Fokua Foru Aldundien ekarpenetan jarriz gero, zeintzuk aurrekontuan pisu handiena duten (%79), ikusiko dugu aurreikusitakoa baino 950 milioi euro gehiago izango direla, hau da, %10eko igoera erlatiboa. Horregatik atera genuen ondorioa izan zen Foru Aldundien 2021ko ekarpenari buruzko aurrekontua oso zuhurra izan zela. Aldundien ekarpen handiagoa ez ezik, beste sail batzuk ere hazi dira, esaterako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoarena (298 milioi gehiago); espainiar sektore publikoarekiko finantza-harremanak 84 milioitik 889 milioiraino haziko dira, eta Europar Batasunarekikoak, 102tik 197 milioira.

Beraz, sail horien hazkundearekin sarrerak 13.397 milioi euro izango dira. Sarreren igoera hau zela eta Eusko Jaurlaritzak ez du jaulki behar izan aurrekontuan jasotako zor guztia. Iaz ohartarazi genuen jaulki nahi zuten zor kopurua oso handia zela; azkenean erdia baino gutxiago atera dute merkatura: 2.552 milioien ordez 1.165 izan dira. Nolanahi ere, oso kopuru handia da.

Diru-sarreraren grafikoa aurrekontu-proiektuan eta itxiera-aurreikuspena 2021 (milioi €)



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren 2022ko aurrekontu-proiektua

2021eko aurrekontu-gastuaren betearazpenari dagokionez, berriz, gastu-aurreikuspena aurrekontukoa baino handiagoa da; 2021eko aurrekontuan guztira gastua 12.442 milioi euro izango zela esaten zen, eta itxieran espero den zenbatekoa, 12.708 milioi; horrek esan nahi du

aurrekontuan jaso baina 265 milioi euro gehiago gastatuko direla, ez gehiago, 1.000 milioi gehiago sartu badira ere. Hau da, egoerak eragindako beharrezanean aurre egiteko aukera izanagatik ere, Eusko Jaurlaritzak erabaki du pandemiaren ondorioei aurre egiteko gastuak ez duela igoera handirik izango.

Analisia atalka eginez gero, igoerak batik bat Ekonomia eta Ogasunean dira. Zehazki, 268 milioi euro gehiago autonomo eta enpresentzako zuzeneko laguntzetarako Covid lerroen ondorioz. Hezkuntza eta osasungintzako gastua ere gehitu da, baina %5 eta %4,4 baino ez, hurrenez hurren. Haatik, lan eta enplegu saileko gastua %4,4 murriztuko da; hau ulertezina da enpleguaren egoera eta milaka pertsonak jasaten duten prekarietatea ikusirik. Beraz, agerian geratu da arlo honetan ere Urkulluren gobernuaren lehentasuna zein izan den eta izango den.

Eusko Jaurlaritzaren 2021eko Aurrekontua eta gastu-itxiera aurreikuspena (milioi euro)

	Aurrekontua	Itxiera aurreikuspena	Aldaketa
Hezkuntza	3.108	3.264	%+5
Osasuna	4.184	4.368	%+4,4
Ekonomia eta Ogasuna	87	309	%+254
Lana eta enplegua	944	902	%-4,4
Besteak	4.119	3.864	%-6,2
GUZTIRA	12.442	12.708	%+2,1

Iturria: 2021eko aurrekontu-proiektua eta 2021eko aurrekontuaren likidazioaren aurreikuspena

Aurreikuspenen arabera, zorra jaulki ez balu Eusko Jaurlaritzaren defizita urte amaieran %3,7koa izango zatekeen, baina 2020an bezala, zor jaulkipenari esker 2021eko ekitaldia 2020koa baino are superabit handiagoz itxiko du; gastatu gabe 689 milioi euro geratuko dira.

Bitxia da Azpiazu sailburuak duela gutxi Legebiltzarrean izan zuen agerraldi batean esan izana gastu-kontrol politikari ez zeritzola ondo, eta bere nahia izan zela muturreraino joatea (beti ere gastu-arauak betez). 2020 eta 2021eko aurrekontu-politika aztertuta, errealitatea oso bestelakoa da. Gastu-araua indarrean izan ez den urteetan edo diru-sarrerak espero baino handiagoak izan direnean aurrekontua ez da gehitu, edo oso gutxi hazi da.

4. 2022KO AURREKONTU-PROIEKTUAREN BALORAZIOA

4.1. Marko makroekonomiko baikorregia

Lehenik, Ekonomia eta Ogasun sailak azaltzen duen testuinguru ekonomikoaren analisia egin behar da; izan ere, aurrekontuak uneko egoera ekonomikoaren baitakoak izan behar baitira. Eta deigarria da aurrekontuen azalpen-txostena honela hastea: "2020ko aurrekontuak itxaropen testuinguru batean kokatzen dira...", benetan ekonomian ziurgabetasuna nagusi denean. Egia da ekonomia hazten ari dela urtearteko kopuruetan, baina estatu eta nazioarte mailako erakunde guztiek ematen dituzten adierazleak behatuz gero, edota kaleko eta enpresetako errealitatea, badirudi Eusko Jaurlaritzak errealitatetik kanpo dagoela.

Zergatik? 2022ko aurrekontua egiteko oinarritzat aurreikuspen ekonomiko bereziki baikorrak hartu dituztelako. 2021eko aurrekonturako esan bazuen ekonomia %8,9 haziko zela, errealitateak adierazten digu V formako susperraldirik ez datorrela eta hazkundera nahi baino motelagoa dela. Eusko Jaurlaritzak berak hirugarren hiruhilekoko datuak ezagutzera eman zituen, eta horien arabera urtearteko BPG %3,8 hazten ari zen, ez %5,5, lehenago egindako aurreikuspenetan bezala.

Doikuntza hauek zalantzan jartzen dituzte gobernuak 2021erako ezarri duen hazkunde helburua, %6,7koa.

Eusko Jaurlaritzaren txosten ekonomikoak ikusirik, agerikoa da ekonomiaren hazkundera etheen kontsumoari lotuta dagoela. Baina inflazioa oraingoaren modukoa denean, oinarritzko produktuetan –jakiak, argindarra, energia...– begibistakoa da horrek pertsonen eros-ahalmenari erasango diola, eta kontsumo pribatua uzkurto egingo dela.

Eskaintzaren aldetik ere gauza bera gertatzen da. Enpresen ekoizpen-kostuak gehitzen ari dira argindarra, energia eta garraioa garestitzen ari direlako, eta beren jarduerarako hornigaiak lortzeko arazoak dituztelako. Deslokalizatutako merkatuekiko menpekotasun horrek eragiten du ekonomiaren hazkundera txikiagoa izatea.

Hain zuzen horregatik harrizkekoa da, beste erakunde batzuek aurreikuspen zuhurragoak egin dituztenean eta egoera honek dakarren ziurgabetasunaren aurrean, Eusko Jaurlaritzak aurten %6,7ko hazkundera aurreikusten jarraitzea, eta 2022rako %6,4koa, desbideratze hauek ondorioak izan baititzakete diru-bilketan eta datorren urteko aurrekontu-proiektuaren betearazpena doitzerakoan.

4.2. Berrikuntza handirik gabeko aurrekontua

Aurten ere, beste askotan bezala, 2022ko aurrekontu-proiektua historiako hedakorrena dela esan dute. Aurrekontua 13.108 milioi euroena da, hau da, ia 400 milioiren igoera (%+3,14) 2021eko aurrekontu-itxierarako aurreikuspenaren aldean.

Hala bere, bi sail kendu behar dira erabakitzeke zein den Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu operatiboa, hau da, bere benetako ahalmen ekonomikoa:

- Batetik, zorra ordaintzeko saila (929 milioi euro).
- Bestetik, herri-lanen aurrerapenari dagokiona; gastu hau espainiar Gobernuari egotziko zaio etorkizunean (56 milioi AHT eta Burdinbideko Hego-Saihesbidea egiteko).

Sail hauek kenduta Jaurlaritzak 12.122 milioi euroren aurrekontu operatiboa izango du bere sailen artean banatzeko, hots, 2021eko aurrekontu kontsolidatuan baino 271 milioi gehiago. Igoera %2,3koa da. Kopuru hauek ezagutzea beharrezkoa da, Eusko Jaurlaritzak esan baitu igoera %6koa izango dela. Haatik, gobernuak kopuruak alderatzen ditu 2021 eta 2022ko aurrekontuekin, eta ez hauen betearazpen mailarekin. Aurreko ataletan ikusi dugunez, kontu bat baita aurrekontua eta bestea, oso ezberdina, gauzatzen dena.

Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu-proiektua AHT eta zor publikoa kenduta (milioi euro)

	2022
Guztizko aurrekontua	13.107
(-) AHT aurrerapena	56
(-) Zor publikoa	929
(=) GUZTIRA AHT ETA ZOR PUBLIKOA KENDUTA	12.122

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren 2022ko aurrekontu-proiektua

Aurrekontua saltzeko behin eta berriz entzun den esaldia izan da “10 eurotik 8 gastu sozialera bideratuko” direla. Saltzeko argudio oso ona da, baina azaldu beharra dago ere Eusko Jaurlaritzaren

eskumen gehienak hain justu horren ingurukoak direla, gastu soziala alegia. Horregatik, ez da harrizkoa aurrekontuaren zatirik handiena osasun, hezkuntza edo gizarte-politikara bideratzea.

Noski, Eusko Jaurlaritzak aurrekontuak ezagutzera eman dituenean ahalegin berezia egin du inbertsioen pisua goraipatzeko. Proiektuaren arloetan 1.600tik gora milioi euro bideratu nahi dituzte, hau da, %50eko igoera. Ahalegin nabarmena da I+G eremuko inbertsioa, 588 milioi euro, baita Jaurlaritzaren eta Aldundien erakundearteko inbertsio-plana ere. Haatik, kontu bat da aurrekontua eta bestea, benetan gauzatzen dena. Izan ere, 2021eko urrian aurtengo ekitaldirako aurreikusita zeuden inbertsio errealen %25 besterik ez baita gauzatu. Adi egon behar da, ikusteko 1.600 milioiren inbertsio horiek egiten diren ala propaganda hutsean geratzen diren.

2022an Covid-19ak eragindako krisiari aurre egiteko laguntzak pixkanaka jaitsi egingo dira. Hain zuzen, nabarmena da Ekonomia eta Ogasuneko sailaren jaitsiera aurtengo itxiera aurreikuspenarekiko: 2022rako 128,5 milioi euro aurreikusi dira, 2021ean 309 milioitan ixtea espero delarik (%58ko jaitsiera). Murrizketa gogor honen arrazoia da desagertu egingo direla Autonomo eta Enpresentzako Covid lerroetako Zuzeneko Laguntzak: 2021ean 268 milioi izan dira. Laguntza-lerro horiei dagokienez, nabarmendu behar da, kudeaketa txarragatik, espero ziren 35.000 eskaeretatik 6.000 inguru baino ez direla erregistratu; beraz, 268 eskaeretatik 115 milioi erabiliko dira gehienez, eta Sanchezen gobernuari 100 milioi euro inguru itzuli beharko zaizkio.

Aurreko ekitaldian sortutako Covid Funtsa, berriz, 543 milioi izatetik 349 milioira jaitsiko da. Funts honi dagokionez, osasun eta hezkuntzarako %100ari eutsiko zaio, baina ikusiko dugunez arlo hauek, zeintzuk aurrekontuaren ia bi heren osatzen duten, urrun daude oraindik Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan egiten den ahaleginetik.

Kontutan izan behar den beste datu bat da pertsonal-gastua. Langile publikoen soldatak %2 igotzea planteatu da; igoera azken urteetan Madrilen erabaki izan da, baita Jaurlaritzak txintik esan gabe onartu ere. INEren datuen arabera, Kontsumoko Prezioen Indizea (KPI) etengabe igo da 2021 osoan, eta erreferentziazko indizea % 5,4 handiagoa izan da urrian, aurreko urteko hil beraren aldean. Etengabeko igoera horrekin eta datozen hilabeteetarako aurreikuspenekin, langile publikoek erosteko ahalmena murriztuko dutela aurreikus daiteke. Gainera, Eusko Jaurlaritzak ezartzen duen igoerak eragin zuzena du gero hitzarmen kolektiboak negoziatzerakoan, eta langile-klase osoari eragiten dio.

4.3. Osasuneko gastua berriz ere uzkuritu da

Osasun sailaren 2022ko aurrekontua 4.352 milioi euro izango da, hau da, 2021eko itxiera aurreikuspena baino 16 milioi euro gutxiago. Azpiazuk arlo honetan %4ko igoera izango dela esaten duenean, kopurua iazko aurrekontuarekin alderatzen du. 2021eko gastu-aurreikuspenaren aldean, berriz, osasungintzako aurrekontua benetan %0,4 jaitsi da, sail honetan Covid Funtsa osorik mantenduagatik ere (185 milioi).

Nahiz pandemiaren faserik larriena igaro den, Osakidetzak ez ditu konpondu aurrez zituen egiturazko arazoak. Erabiltzaileek ez dute kalitatezko arretarik jasotzen; telefonozko hitzorduak lehenesten dira, aurrez aurrekoen kaltetan, eta itxaron-zerrenda luzeak jasan behar dituzte. Honi erantsi behar zaio Osakidetzan aldi baterako langile ratio altua: Osasun sailaren datuen arabera, %58tik gora dira; 24.600 pertsonak urtetan kontratuak bata bestearen atzetik sinatzen dituzte lanpostu finko bat iritsi arte.

Baliabideen gabezia are nabarmenagoa da Osasun sailak BPGarekiko duen pisuari erreparatuz gero. Espero da osasungintzako gastua BPGaren %5,2 izatea, 2021eko aurrekontu eta gastu itxieraren azpitik (%5,32 eta %5,63, hurrenez hurren). Osasun sektorearen egiturazko arazoak gorabehera, osasuneko gastu publikoko ahalegina duela 10 urte zegoenaren oso antzekoa da.

Osasuneko gastua (milioi euro) 2010-2022

	2021 (aurrekontua)	2021 (itxiera aurreikuspena)	2022
Milioi €	4.183	4.369	4.352
Osasuna/BPG pisua	%5,32	%5,63	%5,2

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren 2022ko aurrekontu-proiektua, Eustat

4.4. Hezkuntzan tendentzia berdina

Antzeko zerbait gertatzen da Hezkuntza sailarekin, aurrekontuko bigarren sail handienarekin. 2022ko aurrekontua guztira 3.235 milioi euro izango da, 2021eko itxiera aurreikuspena baino 29 milioi txikiagoa (%0,9 gutxiago). Covid Funtsa hemen ere osorik mantenduko da, 95 milioi euro guztira, baina hau aldi baterako kopurua da.

Hezkuntzan ere BPGarekiko pisua iazkoa baino txikiagoa izango da. Aurtengo itxieran aurreikusten da hezkuntzaren pisua aberastasunaren %4,21ekoa izatea, eta 2022an %3,86raino eroriko da. Urte arteko aldaketa txiki hauek, dena den, ez dute azken hamarkadako joera aldatzen: Hezkuntza sailaren BPGarekiko pisua beti ibili da %3,64 eta %4,34 inguruan, beti ere beste herrialde europarretan baino askoz beherago alegia.

Hezkuntzako gastua (milioi euro) 2010-2022


	2021 (aurrekontua)	2021 (itxiera aurreikuspena)	2022 (aurrekontua)
Milioi €	3.108	3.264	3.235
Hezkuntza/ BPG Pisua	%3,95	%4,21	%3,86

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren 2022ko aurrekontu-proiektua, Eustat

4.5. Europar Batasuneko azken postuetan osasun eta hezkuntzan

Aurrekontuko bi sail nagusiek, osasungintzak eta hezkuntzak, zenbateraino duten gastu urriergia ulertzeko europar herrialdeekin alderatu behar da. Eskura dauden Eurostaten azken datuen arabera, EAeko osasun gastua BPGarekiko %5,1eko aizan zen; aldiz, Europako batez besteko maila %7,1koa izan zen, bi puntu handiagoa. Beste ekonomia batzuekin alderatuz gero, aldea askoz ere handiagoa da. Italian gastua %6,8koa izan zen; Alemanian, ratioa %7,4koa izan zen; Frantzian, %8koa; portzentajerik altuena Norvegiak izan zuen: %8,7.

Gastu publikoa osasunean (% BPG). UE-28, 2019




Iturria: guk geuk egina, Eusko Jaurlaritzaren 2022ko aurrekontu-proiektuaren, Eurostaten, Eustaten eta Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta

Europako batez besteko mailarekiko bi puntuko alde hau gainditzeko 2022ko aurrekontua 1.674 milioi handiagoa izan beharko litzateke; horrela osasuneko gastua %38 gehituko litzateke. Alde hau askoz ere handiagoa litzateke Alemaniarekin edo Frantziarekin erkatuz gero (haien parera iristeko 1.926 edota 2.428 milioi euro beharko lirateke, hurrenez hurren). Datuok adierazten dute oso urrun gaudela beste ekonomia aurreratu batzuekiko, eta osasungintzara bideratzen diren baliabideak, areago pairatzen ari garen egoeran, oso eskasak direla.

Hezkuntzako gastua antzera analizatuz gero, ondorioak berdintsuak dira. 2019an hezkuntzaren pisua BPGarekiko EAEn %3,7koa izan zen; aldiz, europar batez bestekoa %4,7 izan zen, puntu bat gehiago. Ratio hori soilik Errumanian eta Irlandan izan zen apalagoa. Beste herrialde batzuetan, esaterako Frantzian, gastua %5,3koa izan zen; Belgikan, %6,2koa; altuena Islandian izan zen: %7,1.

Gastu publikoa hezkuntzan (% BPG). UE-28, 2019



Iturria: guk geuk egina, Eusko Jaurlaritzaren 2022ko aurrekontu-proiektuaren, Eurostaten, Eustaten eta Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta

Europako batez besteko mailarekiko puntubeteko aldera iritsiz gero Hezkuntzan 837 milioi euro gehiago gastatu beharko lirateke, 2022rako aurreikusi dena baino %26 gehiago alegia. Ikus daiteke, beraz, aurrekontuko bi arlo nagusiek, osasunak eta hezkuntzak, inguruko beste herrialdeekin alderatuz gero aurrekontu urriagoa dutela, izan ere aurrekontuko bi partida nagusiak Europako batez bestekoarekin berdinduko bagenitu, aurrekontua 2.500 milioi euro baino gehiago handitu beharko litzateke.

4.6. Inbertsioa etxebizitzan ez da nahikoa

2022rako etxebizitzako aurrekontua 170,7 milioi euro dira, 2021eko itxiera aurreikuspenekoa baino 12,5 milioi gutxiago. Biztanle askok eta askok bizileku duina izateko duten premia dela eta, 2022rako aurrekontua, aurreko urteetan bezala, oso urria da. Etxebizitza eskubide unibertsala izanik, proiektuan ia ez du lekurik.

Gainera, etxebizitzako gastua txikiagoa da 2009 edo 2010ean baino.

Etxebizitzarako aurrekontua (milioi euro)

	2021 (aurrekontua)	2021 (itxiera)	2022 (aurrekontua)
Milioi €	159,6	183,2	170,7

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren 2022ko aurrekontu-proiektua

4.7. Atzera ere gizarte-prestazioen murrizketa

2022rako, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DSBE) zuzkidura 35 milioi euro murriztea aurreikusi da, aurreko urtearekin alderatuta. Zuzkiduraren murrizketa hori gertatzen da Eusko Jaurlaritzak Espainiako Gobernuak Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera transferitzea aurreikusten duelako. Transferentzia horren bidez, DSBE jasotzen dutenen kopurua murriztea espero dute.

Zenbatekoari dagokionez, aurrekontuek DSBEan %3ko igoera planteatzen dute. Haatik, aurreko urteetan bezala, igoera eginagatik 2008ko legea ez da beteko: DSBE Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren (LGS) %86 izan behar da, eta %100 pentsiodunentzat.

Aurrekontuetan jasotako eguneratzearekin DSBE orokorraren zenbatekoa 727,4 euro izango da, eta ez 2008ko legearen arabera izan beharko liratekeen 975,3 euro. Lege hau ez da aldatu; beraz, urtez urte Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak baliatzen dira DSBEaren zenbatekoan murrizketa handi bat ezartzeko. 2022rako DSBEaren eguneratzea ezagutzeke gaudelarik, mozten den kopurua ia 250 euro dira. Pentsiodunei dagokienez, DSBE zenbatekoa 834,5 euroan legoke, baina 2008ko legearen arabera 1.108,3 izan beharko lirateke, hots, 275 euro gehiago. DSBEaren zuzkidura gutxitu beharrean, Gutxieneko Diru-Sarrera sartzeagatik, prestazioaren zenbatekoa handitzeko inbertitu beharko litzateke dirua, legearen arabera ezarritik.

DSBEaren zenbatekoa 2022an. Bakarrik bizi diren pertsonak

	2022ko aurrekontua	2008ko Legea	Murrizketa
DSBE orokorra	727,4	975,3	-247,9 euro
Pentsiodunen DSBE	834,5	1.108,3	-273,7 euro

Alokairurako laguntza ekonomikoei dagokienez, 10 urtez zenbatekoa izoztuta izan ondoren aldaketak egingo dira. Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria (EPO) zein Etxebizitzarako

Prestazio Ekonomikoa (EPE) 25 euro gehituko dira, 250 euro ordeztuz 275 izango direlarik. EPOa jasotzen dute DSBEa jaso baina etxebizitza gastuetarako laguntza behar dutenek; EPEa, aldiz, alokairu sozialeko bizileku sozial bat izateko eskubidea dutenek, halakorik eskura ez dagoenean, 2015eko Etxebizitza Legearen baitan. Zenbatekoa hobetuagatik ere, 2010ean ematen zen EPOaren hileko 320 eurotik askoz beherago dago.

Gazteei alokairua ordaintzen laguntzeko ematen den Gaztelagun prestazioaren zenbatekoa aurrekoen parekoa izango da. Haatik, 25 euro igota ere, prestazio hauek urriegiak dira, baina ez soilik merkatu libreko etxebizitza bat ordaintzeko (EAeko batez besteko maila 1.050 euroan dago), baizik baita alokairu sozialeko bizilekuetarako, hauen batez besteko errenta 350 eurotik gorakoa izan ohi baita.

Gizarte Larrialdietarako Laguntzetarako (GLL) aurrekontuari dagokionez, iazko bera izango da, 42,5 milioi euro. Gogoratu beharra dago laguntza hau ez dela eskubide gisa aitortzen eta aurrekontuan jarritako kopurua agortu bezain pronto prestazioaren jasotzaileei ez zaiela diru gehiago ordaintzen.


4.8. Zorra ordaintzeko kopurua eta zor bizia, gero eta handiagoak

2022an zorra ordaintzeko 929,5 milioi euro aurreikusi dira, hau da, aurrekontu guztiaren %7,1 (AHT kenduta). Beraz, zorra ordaintzeko 112,7 milioi gehiago jarriko dira 2021eko itxieran baino. Igoera %13,8koa da, alde handiz gehien haziko den saila, izan ere, osasunean eta hezkuntzan diru kopuruak murriztu egin baitira. Aipatutako zenbatekotik 746 milioi zorra amortizatzen dira, eta 183,4 milioi, interesak ordaintzeko.

Zorra ordaintzeko kopurua hazi arren, zor bizia markak hausten ari da; honez gero 10.594 milioi dira, azken urteetako kopururik handiena balio absolututan. Iaz baino 523,2 milioi gehiago izango dira. Hori gertatzen da nahiz eta iaz superabita izan eta soberakina handiagoa izan den, bigarren atalean azaldu denez.

Eusko Jaurlaritzak zorpetzeko erabakiari eusten dio; lehenengo puntuan aipatu den zor jaulkipenak frogatzen du hori. Gainera, zorra datorren urtean are handiagoa izango da; balioespenen arabera, 11.200 milioi euro gaitutuko ditu, hau da, 2022ko aurrekontu osoa adina (zorra eta AHT kenduta).

Zor biziaren bilakaera balio absolututan (milioi euro) eta zorra/BPG ratioa




Iturria: Azterketa Bulegoa, Eusko Jaurlaritzaren 2022ko aurrekontu-proiektua oinarritzat hartuta

4.9. Sarreraren politika zorraren menpe; zerga-erreformaren beharra

Eusko Jaurlaritzak bere sarrera-politikari buruz duen posizioa nabaria da; ikusi dugu 2020 eta 2021 urteetan zerga-erreforma egin baino nahiago izan duela zorpetu. 2022ko aurrekontua tankera berekoa da: erreforma horren aukera baztertu eta ostera ere zorra jaulkitzen du sarreraren zati handi bat lortzeko. Sarri esan izan dugun legez, politika honek kutxa publikoei ahalegin handiagoa eskatzen die, zorrak sortzen dituen interesen ordaina medio.

Datuak aztertuz gero, Eusko Jaurlaritzaren 2022ko sarreraren aurrekontua 13.107 milioi eurotan geratzen da, hots, 2021eko itxiera aurreikuspena baino 289 milioi gutxiago; kopuru erlatiboetan %2,2ko jaitsiera. Ekarpenerik handiena Foru Aldundiek egingo dute, %83,9 (11.004 milioi euro). Ekarpenerik hauek 2021an baino %4,1 handiagoak dira Ogasunek diru gehiago bildu dutelako.

Eusko Jaurlaritzaren sarrerak (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren 2022ko aurrekontu-proiektua

Zor jaulkipena berriro handiagoa izango da, 1.430 milioi eurora iritsiko da, hau da, aurrekontuaren %10,9 izatera: 2021an baino %22,7 gehiago. Gogoratu altxortegian 2020 amaieran 2.423 milioi euro zeudela; hortik 250 milioi besterik ez dira hartzen aurrekontu hauetan sartzeko.

Sarreraren jaitsiera gertatuko da 2022an ez delako dirurik jasoko espainiar estatuko Covid funtsetik; hortik 2021ean 220 milioi inguru etorri ziren. Ez daude jasota ere Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko (SEM) funtsak. Funts hauei dagokienez, 2022ko aurrekontu-proiektuak sarreretan ez du aintzat hartu haietako zenbatekorik, 2021eko ekitaldiko balilzko soberakinak izan ezik. Horretarako arrazoi nagusia izan daiteke Urkulluren gobernuak berek ere ez dakiela zenbat diru jasoko duen, ez eta noiz ere, SEMetik. Funtsak aurrekontuan sartzeko xedapen bat erantsi da; honen arabera, funtsak iritsi ahala aurrekontuan txertatuko dira. Ikusteko dago baliabide hauek jasotzeak gastu gehigarria eragingo ote duen -hala eskaten du SEMen araudiak- edo beste sail batzuetan aurrezteko baliatzen diren.

Eusko Jaurlaritzaren sarrerak, 2021 eta 2022 alderatuz (milioi euro)

	2021 (itxiera aurreikuspena)	2022 (aurrekontu proiektua)	Aldakuntza
Foru Aldundiak	10.569	11.004	%4,1
Zor Publikoa	1.165	1.430	%22,7
Espainiako arlo publikoarekiko finantz-harremanak	973	83	%-91,5
Suspertze eta erresilientzia mekanismoa	298	0	%-100
Europar Batasunarekiko finantz-harremanak	197	259	%31
Besterik	492	333	%-32,3
GUZTIRA	13.397	13.107	%-2,2

Egoera honen aurrean ELAk ezinbesteko deritzo diru-bilketa handitzeari, zor jaulkipenaren hain menpeko ez izateko. Gainera, EAEko presio fiskala Europar Batasuneko batez besteko maila baino askoz apalagoa da, batetik, soldatapeko ez diren errentetan dagoen iruzur fiskala medio, eta bestetik, errenta altuek, enpresek eta kapitalak ordaintzen dituzten zergak jaitsi egin direlako azken hamarkadetako zerga-erreformen ondorioz. Presio fiskala Europako batez besteko mailara ailegatzeko urtean ia 6.000 milioi euro gehiago bildu beharko litzateke.

Hori dela eta zergen egitura berrikusi eta goitik behera aldatu behar da, haiek enpresen eta errenta altuenen interesen mesedetan diseinatuta baitaude. Ez da justizia sozialik izango bidezko zerga-sistematik gabe; justizia fiskalaren oinarriak dira aberastasunaren birbanaketa eta zerbitzu publikoak bermatzeko adineko diru-bilketa. Horregatik, zor hau ordaindu ahal izateko etorkizunean murrizketarik ezarri behar izan gabe, zerga-erreforma beharrezkoa da. Erreforma horrek hainbat konturi heldu behar die; ELAk lehenago ere proposatu zituen sarrera publikoak gehitzeko neurri zehatzak. Besteak beste, hauek:

1. Sozietateen Zerga: Kenkariak bertan behera utzi eta 2019ko Sozietateen Zergako aitortpenean errekaru berezi bat ezarri, urte hartako etekinen %20koa. Horrela EAEn 1.750 milioi euro eskuratuko lirateke.
2. Ondarearen, aberastasunaren eta fortuna handien gaineko zerga. Errekargu espezifiko ezarri, progresiboa, %1 eta %10 bitartekoa. Honela EAEn 2.000 milioi gehiago bilduko lirateke.
3. PFEZ progresiboagoa: eskala aldatu eta tasa marjinala %60raino igo; kapitalaren tarifa espezifiko kendu. Kuantifikazioa izango litzateke eskalaren progresibotasun areagotzearen arabera.

4.10. Gastu fiskalak, kapitalarentzako oparia

Ezberdintasuna eragiten duen beste kontu bat, hau ere aberatsenen mesederako tratua, zerga guztietan dauden onura fiskalak dira. Onura fiskalak dira salbuespenak, hobariak eta kenketak, zeintzuei esker gutxiago ordaintzen den. Eusko Jaurlaritzaren 2022ko aurrekontua 13.051 milioi euro dira (AHTari eta Trenbideko Hego Saihesbidea kenduta). Onura fiskalen aurrekontua, hots, ordaintzen ez dena, 6.604,3 milioi euro, hau da, aurrekontuaren ia erdia.

Onura fiskal batzuek berrikusi eta estrukturaliki aldatu behar dira, izan ere, errenta altuei eta enpresei mesede egiteko besterik ez baitira baliatzen. Hau injustizia sozialaren arrazoietakoa bat da. Bide batez, onura fiskalez mintzatzean, derrigor aipatu behar da Sozietateen Zerga. Enpresei eta kapitalari ematen zaizkion onura fiskalek kutxa publikoei galera handiak eragiten dizkiete. 2021eko gastu fiskalen aurrekontua Sozietateen eta Ondarearen zergetan 727 milioi euro ziren.

5. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

Urtero legez propaganda da nagusi, baina aurten inoiz baino areago. Ez da berria aurrekontuak saltzea inoizko "hedakorrenak" eta "sozialenak" balira bezala, are "historikoak" direla esatea, baina hori dena propaganda hutsa baino ez da, aurrekontu-proiektuaren analisia eginez gero agerian geratzen dena.

2022ko aurrekontuak oso garrantzitsuak dira, ekonomiak datorren hamarkadan hartuko duen norantza markatuko baitute. Aurrekontu hauek eragin dezakete balantza alde batera edo bestera lerratzea, eta ekonomia eta enplegua suspertzeko lagungarri izan beharko lirakeke. Alabaina, txostenean ikusi dugunez, aurrekontu hauek ez dute betetzen izan beharko luketen helburua. Txosteneko ondorio nagusiak hauek dira:

- 2020. urtean guztizko gastua aurrekontuan jasota zegoena adinekoa izan zen. Hau da, aurrekaririk gabeko krisi ekonomiko bat pairatuagatik, Eusko Jaurlaritzak nahiago izan zuen gastua asko ez gehitu pandemiaren ondorio sanitario, ekonomiko eta sozialei aurre egiteko. Eta ez zen izan dirurik ez zegoelako, Pedro Sanchezen gobernuak egindako transferentziei esker Jaurlaritzak 2020ko ekitaldia 540 milioi euroren superabitarekin itxi baitzuen.
- 2021ean 2020ko gauza bera gertatuko da: esperotakoa baino %2,1 gehiago gastatuko da besterik ez, diru-bilketa nabarmen igo den arren eta Estatutik transferentziak egon diren arren, eta aurreikusten da 2021 amaitzea 689 milioi gastatu gabe daudela; administrazioaren aurreikuspenen arabera ekitaldia itxiko da 2.500tik gora milioi euroren soberakinarekin.
- 2022ko aurrekontuaren marko makroekonomikoa errealitatetik urrun dago; aurreikuspenak baikorregiak dira, egoera ekonomikoa ziurgabetasunez beteta baitago.
- 2022ko aurrekontuan gastu soziala jaitsi egingo da. 2021eko itxierarekiko osasun eta hezkuntzara baliabide gutxiago bideratuko dira.
- Aurrekontu-proiektuak eutsi egiten die DSBEaren zenbatekoan ezarritako murrizketa handiei, baita etxebizitza politikarako oso kopuru urria jartzeko ildoari.
- Zorraren ordainak garrantzia hartuko du; hau da gehien haziko den saila. Hala ere, zor biziaren hazkundeak ez du etenik.

Horrenbestez, aurrekontuok kontinuitateak dira eta aukera oso ona galduko da urte askotan uzkurtuta izan diren hainbat sailetan inbertsio handiagoa egiteko. Aukera galduko da, batetik Egonkortasun eta Hazkunde Ituna 2023ra arte etenda izango delako, eta bestetik nahikoa dirua badagoelako aurrekontuak benetan hedakorrak izan daitezen. Ez hedakorrak izate hutsagatik, baizik eta behar sozialak asetzeko (hezkuntza, osasuna, etxebizitza, gizarte-babesa, etab.), eta gero eta premia handiagoa den eredu produktiboaren motor izan daitezen.

Kontua da gastu publikoa ekonomiaren motor bat dela; horregatik Eusko Jaurlaritzak pisu handiagoa izan beharko luke ekonomian, inbertsio publikoaren bidez; baina ez soilik herritarrentzako zerbitzuetan, baizik bait enpresa estrategikoetan eta balio erantsi handiagoa sortuko dutenetan ere. Horregatik arlo publikoa aitzindari izan behar da covid osteko aro berrian, eta esan dugun moduan, premisatzat hartuta eredu aldaketa beharrezkoa dela. Eredu aldaketa horrekin baztertu egin behar da lankidetzak publiko-pribatua, eta esku publikoak enpresa

estrategikoak bere kontrolpean jarri behar ditu, edota gizartearen behar berriei erantzuna emateko enpresa berriak sortu.



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA